# ASILO, MIGRAZIO ETA INTEGRAZIORAKO FUNTSA
## 2014-2020

| | |
|---|---|
| **ERREFERENTZIA** | Asilo eta Migraziorako Funtsa 2014-2020 (Europako Batzordea. Barne Arazoak ZN). |
| **HELBURUA** | Funtsaren xedea Europar Batasunan diren migrazio fluxuen kudeaketa eraginkor batera laguntzea da, Europako bestelako barne politika guztiak bezala, askatasun, segurtasun eta justizia gune baten sorreran laguntzeko.<br><br>Funtsak ezartzen dituen berariazko helburuak dira:<br><br>1. Asilorako Europako Sistema Amankomuna garatu eta finkatu.<br><br>2. Estatu kideen behar ekonomiko eta sozialen baitan Batasunera datorren migrazio legala lagundu.<br><br>3. Estatu kideetan itzulera estrategia eraginkor eta bidezkoak hobetu.<br><br>4. Estatu kideen arteko elkartasuna eta arduraren banaketa hobetu. |
| **EKINTZAK** | Funtsa biztanleria migratzailearen berariazko kolektiboei zuzendutako hiru azpi-funtsetan egituratzen da:<br><br>- Errefuxiantuentzako Europako Funtsa (FER/EEF): Genevako Konbentzioko estatutua duten eta Estatu kideren batean errefuxiatu gisa izateko edo Estatu kideren batean berfinkatzeko baimena duten beste herrialde batzuetako tokikoentzat edo aberrigabeentzat babesa.<br><br>- Gizarteratzerako Europako Funtsa (FEI/GEF): Batasunera datorren migrazio legala erraztu eta pertsona hauek hobeto gizarteratzeko prestatu.<br><br>- Itzulerarako Europako Funtsa (FR/IEF): Borondatezko itzuleraren alde egin eta egote, bizileku edo EB-n nazioarteko babeserako eskubidea duten (edo lortzeko zain diren) beste herrialde batzuetako tokikoen babesa. Horretarako, ondorengo esparruetan europar balio erantsia gehitzen duten ekintza transnazionalak burutu ahal izango dira:<br><br>- Europar Batasunean migrazio eta asilo gaietan legediaren ezarpena errazten duten Estatu kideen arteko lankidetza ekintzak.<br><br>- Berrikuntza suspertu eta esperientzia arrakastatsu eta jardunbide egokien hartu-emana eta zabalkundea errazten duten lankidetza sare eta proiektu piloto transnazionalen sorrera. Asiloa, immigrazioa, integrazioa eta europar mailako itzulerarako politiken garapena errazten duten lankidetza eredu berrien; eta migrazioaren inguruan den pertzepzio publikoaren edo gizartean den aniztasuna islatzeko hedabideek duten gaitasunaren eta gizarteratzean hedabideek duten funtzioaren sustapenaren inguruko azterlan analitikoak.<br><br>- Asilo, immigrazio legal eta hartu-eman eta itzultze gaietan egiten diren Estatu kideen politiken garapena neurtzeko baliabide, tresna eta adierazle estatistiko amankomunen garapena eta ezarpena.<br><br>- Profesional, kazetari eta erakundeetako kideei bideratutako trebakuntza ekintzak aniztasunaren kudeaketa, bitartekaritza eta politika antidiskriminatzaileen kudeaketan. |
| **ONURADUNAK** | Aginte publikoak, erakunde publikoak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak. |
| **AURREKONTUA** | 825.000.000 euro |
| **GAUZATZE ALDIA** | 2014-2020 |
| **INTERESEKO ESTEKAK** | Europako Batzordearen web orrialdea – Programa |

| | |
|---|---|
| | Programa ezartzen duen komunikazioa |
| **INFORMAZIO GEHIAGO** | **Europako Batzordea**<br>Barne Arazoak ZN<br>Rue du Luxembourg 46<br>B-1000 Brusela<br>home-access-documents@ec.europa.eu |